

ELIZPE BABESTUAGOA, URTE OSOAN KULTURAZ GOZATU AHAL IZATEKO

2002. urte inguruan elizpea zaharberritzen hasi zirenean, monumentuko espazioak berreskuratzeko prozesua herritarrentzat irekitzearen aldeko apustua egin zuen Katedralak. Hasiera-hasieratik, Santa Maria erreferente kultural bihurtu nahi zen, betiere izaera erlijiosoa errespetatuz.



IN MEMORIAM VÍCTOR QUINTAS

Joan den apirilaren 23an Victor Quintas hil zen. Katedralaren lagun eta argazkilaririk nekazina, proiektuaren hasieratik gurekin izan dena, bizi izan ditugun momentuen harrapatzaile eta istorioen erretratugile izanik.

Zu ezagutzeko zortea izan dugun 26 urte hauetan, konplizitateak, lana, pozak eta atsekaberen bat ehuntzen joan gara, bizitza hutsa. Milaka dira katedralaren eta bisitatu gaituzten artista, idazle eta pertsona garrantzitsu guztien argazkiak, eta oso gutxi dira bera protagonista zen argazkiak. Victor, faltan botako zaitugu.

GOIAN BEGO



Bi hamarkada geroago, elizpea kulturarako gune bizi gisa finkatu da. Izan ere, milaka pertsonak izan dute aukera hainbat ikuskizunetz gozatzeko: hirurehun bat abesbatza, ehun musika-emanaldi baino gehiago, eta antzerkia, dantza, magia edo poesia, besteak beste. Kulturara irekitako elizpea erabat finkatuta dagoen errealitatea izatera iritsi da gaur egun.

Santa Maria Katedrala Fundazioak hainbat esku-hartze bultzatu ditu urte hauetan, espazio horretako baldintzak hobetearren. 2024an, esate baterako, "Argiaren elizpea" ikuskizunaren polikromiak proiektatzeko ekipamendua berritu zen, bisitan etortzen direnei

multzoaren bilakaera polikromoa erakusteko. Era berean, [iaz, argiztapen monumental funtzional berria aurkeztu zen](#); horrela, errazagoa da herritarrei azaltzea talde eskultorikoen alderdi estetikoak eta ikonografikoak nahiz elizpearen alderdi historikoak, eraikuntzakoak eta arkitektonikoak.

Aurten, 2026an, hobetzeko prozesuari amaiera emango zaio, elizpea inguratzen duten baetan itxitura berri bat jarrita. Zurezko leiho-ate handiekin aire-korronteen sarrera murrizteaz gain, barnealdean klimatizazio egonkorragoa izatea lortuko da. Itxitura brontzezko eta gaztainondo eta zedro zurezko panel mistoek osatzen dute, eta

horien perimetroa brontzezko profalez indartuta dago, duela hamar urte (2006an) itxituretan jarritako egituretan erabilitako material berdina.

Panelek, gainera, irekitzeko sistema automatikoa dute, urrunetik kontrolatua; modu horretan, argi naturalaren eta artifizialaren maila desberdinak konbinatu ahal izango dira, elizpean programaturiko jarduera bakoitzaren beharren arabera. Sistema berri horrek gunea hobetuko du, klimatizatzeko aukerarekin eta, aldi berean, hobeto intsonorizatuta, urte osoan jarduera gehiago egiteko, baita klima hotzeneko hilabeteetan ere. Beraz, erosoagoa izango da herritarrentzat.

SANTA MARIAK MUSIKARENTZAKO ATEAK IREKI DITU BERRIRO ERE AHOTSAK ELIZPEAN EKIMENAREKIN

Koru musika entzungo da katedralean Ahotsak Elizpean ekimenari esker; hau da, maiatza eta ekainean itzuliko den zikloa. Oraingo honetan, Santa Marian lurraldeko hogeitau bat talderen emanaldia eskainiko da, bost musika-ekitalditan.

12. edizioa maiatzaren 8an hasiko da Mairu Abesbatza, Nurat Gazte Abesbatza, Manuel Iradier Abesbatza eta Lúmina Taldearekin. Handik astebetera, maiatzaren 15ean, Erribera Beitia, Kataliturri Abesbatza, Dultzinea Abesbatza eta Badaya Abesbatzaren txanda izango da.

Zikloak hilaren 22an jarraituko du, Enol Abesbatza, Florida Abesbatza, Zurbano Abesbatza eta Gurasoak Abesbatzarekin. Eta, maiatza amaitzeko, 29an Urkanta Abesbatza, Tantik Abestaldea, Vicente Garcia Abesbatza eta Ahots Argiak

Abesbatza arituko dira. Ekainean, Ahotsak Elizpean hilaren 5ean itzuliko da Gasteizko Lagunak Abesbatza, Izartza Abesbatza, Bi-Hotsak Abesbatza eta Canta Cantorum Abesbatzaren emanaldiekin.

Musika-zikloa [Santa Maria Katedrala Fundazioak](#) sustatzen du [Arabako Abesbatzen Federazioarekin](#) batera, eta [Laboral Kutxaren](#) babesa du.

Edizio bakoitzean (oraingoa 12.a izango da), publikoak Lurraldeko abesbatza helduen ahotsez -eta berain musikaz- gozatzeo aukera du, musika koralararen adierazpen guztiak ezautzera ematen baitituzte, eta garai, erregistro, egile eta herrialde ezberdinetako abestiez ere bai. Gainera, ingurune paregabe batean egiten dute, argiaren elizpean, jardueraz modu berezian gozatzeri gonbidatzen baitu.



Kontzertuetarako sarrera doakoa izango da, baina aurrez gonbidapenak hartu beharko dira Bisitarien Zentroan (Santa Maria Kantoia, 3). Pertsona bakoitzeko 2 sarrera banatuko dira. Musika-ekitaldiaren asteko astelehen eta asteartean, Fundatzaileen Zirkuluko kideen eskura jarriko dira sarrerak. Heritarrek, oro har, kontzertua izango den asteko asteazkenetik aurrera jaso ahal izango dituzte gonbidapenak. Musika-hitzorduek (maiatzak 8, 15, 22 eta 29. Ekainak 5) 19:45ean hasiko dira elizpean.

“100 poetaren topaketan” munduko leku ezberdinetako poesia bilduko da katedralean



Santa Marian izango da Nazioarteko XIV. Poesia Jaialdiaren literatura-hitzorduetako bat maiatzaren 9an, larunbata, elizpean, 16:00tetan eta bertan idazleak bilduko dira errezitaldian. Sarrera librea izango da edukiera bete arte.

Poetak maiatzean ekimena maiatzaren 3tik 30era bitarte izango da aurretan. Egun horietan, poesia izango da Gasteizko eta Arabako hainbat herritarren literatura- eta kultura-agendako genero protagonista. Besteak beste, errezitaldiak, topaketak,

aurkezpenak, dantza eta kontzertuak eskainiko dira lurraldean zehar. Jaialdiaren egoitzetako bat, beste behin ere, gure katedrala izango da.

Oraingo honetan, Nazioarteko Poesia Jaialdiaren XIV. edizioan, Santa Maria aintzat hartu dute “100 poetaren topaketarako”; bertan bilduko dira munduko leku ezberdinetatik etorritako poetak errezitaldia eskaintzeko. Modu horretan, poesia idazteko modu desberdinak ezagutzeko eta sortu zituztenen jatorrizko ahotsez gozatzeo aukera eskainiko da.

Santa Maria, beste pertsonaia bat “Nadie llevará flores a los olvidados” eleberrian

Gasteizko Ines Apraiz idazleak “Nadie llevará flores a los olvidados” izeneko trilogiaren lehen liburukia argitaratu berri du.

Hain zuzen ere, suspensezko eleberria da, errotuzko krimenetan eta oroimena eta ahanztura sakontzen dituen ikerketan oinarritua, eta, bertan, Santa Maria Katedralak leku nabarmena du.

